



[Euskal Herrian Euskaraz](#) erakunde euskaltzaleak, Nafarroa Garaian burutu berri diren bi ekimenen berri eman nahi izan du HerriKoloreri bidalitako ohar baten bidez. Larunbatean, hilak 18, Kortes-eko herrian, Iruñerrian euskara zabaltzeaz eta honen normalizazioan eragiteaz arduratzen den barraskiloak ekimena burutu zuen herri horretan, udalerriaren izena adierazten duen bideseinalean ezabaketa gauzatu.

## **Barraskiloaren mezua euskararen herriari:**

"Ley del Vascuence"k, euskararen desagertpenaren bidean, euskaldunon hizkuntza eskubideak zapaltzea du helburu, eta ez euskararen normalizazioa.

Euskarari ezin zaizkio mugak, trabak jarri; Euskarak erroko aldaketa behar du. Lege berri bat, Euskal Herri osoa aintzat hartuko duena, eta euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuz, euskara ofiziala izendatuko duena lurralde osoan.

Bide horretan EHEk ekimen hau egin du, Nafarroa Garaiko parlamentuan emanen den eztabaida antzua (euskarari jarri beharreko mugen inguruan kokatua eta ez euskararen normalizazioari begirakoa) eta "Ley del Vascuence" bera salatuz, eta euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz Euskal Herri osoan.

Gora euskararen aldeko borroka!

Gora Euskal Herri euskalduna!

